

EKONOMIA SOLIDARIOAREN IV AZOKA

azaroak 19 eta 20

Yimby Bilbao, Ercilla kalea 24, 1go solairua, 48011 Bilbo

REAS Euskadik, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea, eta Euskadiko Merkatu Sozialak sustatua.

Ekonomia Solidarioaren Azoka Bilbora itzultzen da IV. edizioan. Aurten ere, Azoka, Ekonomia Solidarioa indartu eta ikustarazi nahi duen espazioa da. Ekonomia Solidarioa, ekoizpen, zerbitzu, komertzializazio, kontsumo edota finantza- sektoreetan gaur egungo krisiari erantzunak eskaintzen dituen hazten dagoen errealitate sozioekonomiko bat da. Guzti hau, beraien bideragarritasuna inguru-errealitate integral, ekonomiko eta sozialean oinarritzen duten enpresa-eredu eta gizarte-proiektuen bitartez lortzen du. Azoka honen bitartez, Merkatu Soziala gizarteari hurbildu nahi diogu eta ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lankidetzaz bultzatu nahi dugu.

Laburbilduz, irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioekin funtzionatzen duen ikasketa, ondasun eta zerbitzuen ekoizpen, banaketa eta kontsumo sare bat da. Sarea, ekonomia solidarioaren entitate eta enpresez eta banakako zein taldeko kontsumitzailez osatuta dago.

Merkatu Sozialaren bitartez, ekonomia solidarioko eta konpromiso soziala duten enpresen sektorea, gizarteratze enpresen sektorea, bidezko merkataritzaren eta produktu agroekologikoen sektorea indartu nahi dugu; herritarrek, erantzukizun sozial, garapen jasangarria, ekitatea, etab. bezalako irizpideak jarraituz sortutako produktu eta zerbitzu mordoa modu integratu batean ikustaraz dezaten.

Horretaz gain, aurtengo azokan harantzago goaz eta bereizten gaituena ikustarazi nahi dugu, geure printzipio eta balioak, hain zuzen ere. Bizitza erdian jarri eta ekonomia beste era batean egin daitekeela erakutsi nahi dugu: geure burua zainduz, ikusezinak izan ohi diren lanen balioa azpimarratuz eta lan horiek egiten dituzten lagunei garrantzia emanez.



goazen azokara!

nos vamos de feria

5 gune

- **Azoka** (erakusketa eta salmenta)
- **Aretoa** (mikrohitzaletak eta tailerrak)
- **Txiki Gunea** (txikiakentzako jarduerak)
- **Atria** (hasiera-ekitaldia, txosna, topaketa, atsedena eta zainketa gunea)
- **Sukaldea** (txiki eta nagusientzako sukaldaritza tailerrak)

40 erakusketari

finantza etikoak, energia alternatiboak, agroekologia eta elikadura subiranotasuna, tokiko produktu ekologikoak, bidezko merkataritza, berrerabilpena eta birziklapena, marketin eta komunikazioa, software askea, eraikuntza, garbiketa, berreskuratuakentako produktuak, higiezen agentzia, ikus-entzunezko produktzioa, mugikortasun jasangarria, gizarte barneratzea eta sentsibilizazioa, informatika, diseinu eta inprenta, ekologia soziala eta informazio alternatiboa, animazio soziokulturala, enplegurako prestakuntza, ostalaritza, ...

10 mikrohitzaletak eta tailerrak

ekonomia feminista, baloredun komunikazio eta marketina, finantza etikoak, hutsik dauden etxebizitzak, guztion onerako ekonomia, Ubuntuaren instalazioa, elektrizitate-fakturaren irakurketa, carsharing taldeak, ...

Umeentzako jarduerak

sukaldaritza tailerrak, material birziklatuarekin egindako objektuak sortzeko tailerrak, Gabonetako apaingarrien tailerra, ipuin kontalariak, desioen zuhaitza, bidezko merkataritza-txokolatada, ...

www.goazenazokara.org Webgune honetan azokaren informazio osoa aurki dezakezue: iragarkiak, irratik-kuinak, kartela, egitaraua, aldizkariak eta askoz gehiago.



@merkatusoziala



merkatu soziala

Ekonomia Solidarioaren Azokak Bizkaiko Foru Aldundiko enplegua, gizarte inklusioa eta berdintasuna sustatzeko sailaren zein Bilboko Udalaren (Bilbao Ekintza) laguntza izan du.

goazen azokara!
nos vamos de feria

